Espediente zk./Nº Expediente**:** 2026OZER0010
Gaia/Asunto**:** Fanderiako Errotako ibaiaren interpretazio zentroko (Ibaiaren etxea) ingurumen jarduerak garatzeko Zerbitzua / Desarrollo de actividades ambientales en el Centro de interpretación fluvial (Ibaiaren etxea) del Molino de Fanderia.
Eskatzailea/Solicitante**:** ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)**/DNI(NIF): P2007200E
Kokalekua/Emplazamiento**:** ERRENTERIA

ERRENTERIAKO FANDERIAKO ERROTAKO IBAIAREN INTERPRETAZIO ZENTROKO (IBAIAREN ETXEA) INGURUMEN JARDUERAK GARATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS RELATIVO A LA CONTRATACIÓN DEL DESARROLLO DE ACTIVIDADES AMBIENTALES EN EL CENTRO DE INTERPRETACION FLUVIAL (IBAIAREN ETXEA) DEL MOLINO DE FANDERIA DE ERRENTERIA

1.- AURRERAKINAK:

2015 urtean Errenteriako Udalak Oiartzun ibaiaren inguruneko Paisaiaren Ekintza Plana (Errenteria) onartu zuen. Planak Errenteriako Fanderiako Errotako Ibaiaren Interpretazio Zentroa (Ibaiaren Etxea) sustatzeko eta sortzeko agindua jasotzen zuen.

2018az geroztik publikoarentzat zabalik dago eraikinaren sotoa, Ingurumen eta Iraunkortasuneko Sailak berritu egin duelarik, eta han daude errota zaharraren makinaria –martxan jar daiteke–, bi ikus-entzunezko eta eraikinaren eta Oiartzun ibaiaren Errenteriako historia azaltzen duten panelak, bai eta herriko ibai-sareari, faunari eta ondare natural eta kulturalari buruzko panelak ere. Era berean, ibaiei, basoei, paisaiari eta klima aldaketari loturiko ingurumen-ekintzak ere egin izan dira.

2019an bukatu ziren berritzeko eta hobetzeko lanak eraikinaren gainerakoaren kanpoaldean eta barnealdean, eta berriz ere ostalaritzako erabilerari heldu zitzaion, Udalaren ingurumen-ekipamendu berri baten baitan: Fanderiako Errota Ibaiaren Interpretazio Zentroa (Ibaiaren Etxea), bateratuta ingurumen-erabilera ostalaritzako jarduerarekin.

1.- ANTECEDENTES:

En 2015 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el Plan de Acción del Paisaje en el entorno del río Oiartzun (Errenteria), que incorporaba el mandato de impulso y creación del Centro de Interpretación Fluvial del Molino de Fanderia (Ibaiaren Etxea).

Desde 2018 se encuentra abierto al público parte del sótano del edificio, que se ha reformado por el Departamento de Medio Ambiente y Sostenibilidad, albergando la maquinaria del antiguo molino, cuyo funcionamiento puede ser accionado, dos audiovisuales y paneles explicativos de la historia del edificio y del río Oiartzun en Errenteria, así como paneles sobre la red fluvial en el municipio, su fauna y su patrimonio natural y cultural. Igualmente, se han venido desarrollando actividades ambientales ligadas a los ríos, a los bosques, al paisaje, y al cambio climático.

En 2019 finalizaron las obras de reforma y mejora en el exterior e interior del resto del edificio, y se reinició el uso hostelero del mismo, en el marco de un nuevo equipamiento ambiental municipal: el Centro de Interpretación Fluvial del Molino de Fanderia (Ibaiaren Etxea), compatibilizando el uso ambiental con la actividad hostelera.

ESKU5235a50c-5037-46e5-8d18-bd1f255dba95

2.- KONTRATUAREN XEDEA:

Fanderiako Ibaiaren Interpretazio Zentroa (Ibaiaren Etxea) berriro zabaldu ondoren, Udalak bertan kudeatu behar du ingurumen-ekintza, ingurumen informazioko eta hezkuntzako politiken eta programen bidez. Horretarako, beharrezkoak diren ingurumen zerbitzuak kontratauko dira.

2.- OBJETO DEL CONTRATO:

Tras la reapertura del Centro de Interpretacion Fluvial (Ibaiaren Etxea) de Fanderia, el Ayuntamiento debe gestionar la acción ambiental del mismo mediante políticas y programas de información y educación ambiental. Para ello, se procede a contratar los necesarios servicios ambientales.

3.- EGIN BEHARREKO LANAREN IRISMENA:

Enpresa esleipendunak ibaiaren interpretazio zentroaren hileroko eta urteko programazioa zehazteaz arduratuko da, Errenteriako udal Ingurumen eta Iraunkortasuneko Sailaren adostasunez.

3.- ALCANCE DEL TRABAJO A REALIZAR:

La empresa adjudicataria deberá responsabilizarse de configurar la programación mensual y anual del centro de interpretación fluvial, en acuerdo con el Departamento de Medio Ambiente y Sostenibilidad. Este poseerá mínimamente el siguiente contenido:

- Fanderiako Errota eta haren inguruko instalazioetarako irteera gidatuak, eta bestelakoak: ubidea, eraikina, ur hartunea, Oiartzun ibaia,...

- Visitas guiadas a las instalaciones del molino de Fanderia y sus alrededores, y de otra índole: canal, edificio, toma de agua, río Oiartzun,...

- Taldeentzako bisita gidatu bereziak Fanderiako errotara: urtean gutxienez 25 bisita egingo dira, eta enpresa lizitatzaileek kopuru hori handitu eta hobetu ahal izango dute beren eskaintzetan. Gai hori formulen arabera kuantifikatu daitekeen balorazio-irizpidetzat hartzen da.

- Visitas guiadas especiales para grupos al molino de Fanderia: se efectuarán un mínimo de 25 visitas anuales, pudiendo las empresas licitadoras ampliar y mejorar ese número en sus ofertas, cuestión ésta que se configura como criterio de valoración cuantificable por fórmulas.

Urteko gutxieneko 25 bisitetaz gain, eta, hala badagokio, kontratistak eskaintzen dituen bisita berriak egin eta gero, taldeen bisita gehiagoren eskaerak izango balira, Udalak beste bisita bakoitzagatik ordainduko dio kontratistari. Hala, enpresa lizitatzaileek nahitaez sartu beharko dute beren eskaintzetan taldeko bisita bakoitzeko banakako prezioa, gauzatu beharreko gutxienekotik aldenduko dena.

A partir de las 25 visitas anuales mínimas y en su caso de las nuevas ofertadas por la contratista, si existiera una mayor demanda de grupos, el Ayuntamiento abonará a parte a la contratista cada nueva visita. Así, las empresas licitadoras deberán incluir necesariamente en sus ofertas el precio unitario por visita grupal que se realizará a partir del mínimo a ejecutar.

- Ingurumen jardueren antolaketa (Gipuzkoa eta inguruko herrialdeetan irteera gidatuak, hitzaldiak, tailerrak,...) antolatzea, besteen artean ondoko gaien inguruan:

· uraren zikloaren kudeaketa
· Naturgune babestuak, basoak eta ibai habitatak
· paisaia babestea
· habitaten leheneratzea eta hiri-birnaturalizazioa
· krisi klimatikoa eta ekologi trantsizioa

- Organización de actividades ambientales (visitas y salidas guiadas en Gipuzkoa y provincias del entorno, conferencias, talleres,...) asociadas entre otras a la siguiente temática:

· gestión del ciclo del agua
· ENPs, bosques y hábitats fluviales
· protección del paisaje
· restauración de hábitats y renaturalización urbana
· crisis climática y transición ecológica
· objetivos de desarrollo sostenible (ODS 2030)
· biodiversidad en general

ESKU5235a50c-5037-46e5-8d18-bd1f255dba95

· garapen jasangarriaren helburuak (2030 GJH)
· bioaniztasuna orokorrean
· habitat naturalak, fauna eta flora
· elikadura burujabetza, osasuna, bidezko merkataritza eta tokiko elikagaien ekoizpena
· kultur ondarea
· irinaren ekoizpena erakustea
· ingurumenarekin lotura duten arazoak

· hábitats naturales y fauna y flora
· soberanía alimentaria, salud, comercio justo y producción local de alimentos
· patrimonio cultural
· producción demostrativa de harina
· problemáticas ambientales

- Publiko helburua eta biztanleriaren azpiarlo ezberdinak:
· helduak
· haurrak eta haien familiak
· hainbat kolektibotasun: euskaltegiak, gaztetxea, gazteak, ikastetxeak, migratzaileak, erretiratuak, emakumeak, auzo elkarteak, beste batzuk...

- Público destinatario y diferentes sectores de la población:
· adultos
· infantil y sus familias
· diversas colectividades: euskaltegis, gaztetxe, jóvenes, centros educativos, población migrante, jubilados, mujeres, AAVV, otras,...

- Interpretazio zentroko errotagintzako instalazioaren aldizkako eta urteko mantentze-lanak: harriak, toberak, olioztatzea, lozagiak,...

- Mantenimiento periódico y anual de la instalación de molinería del centro de interpretación: piedras, tolvas, engrase, embragues,...

- Erabili beharreko bitartekoak: ikus-entzunezkoak, erakusketak, hitzaldiak, irteera gidatuak, aurkezpenak, dokumentalak, tailerrak, eztabaidak, bilerak, dokumentu-funtsa...

- Medios a utilizar: audiovisuales, exposiciones, conferencias, salidas guiadas, presentaciones, documentales, talleres, debates, reuniones, fondo documental,...

4.- KONTRATUAREN BESTELAKO BALDINTZAK:
Jarduerak modu independentean antolatu eta dinamizatuko dira, edota oihartzun handiagoa lortzen duten baterako eskaintzetan parte hartuta:

4.- OTRAS CONDICIONES DEL CONTRATO:

Las actividades se organizarán y realizarán dinamizadas de forma independiente o formando parte de ofertas conjuntas que logren una mayor repercusión:

- Sare edo ekitaldien barruan: Pirinioetako Burdinaren Ibilbidea (Udala bertan dago), Ondarearen Europako Jardunaldiak, Atlantikaldia, Gipuzkoako Erroten Eguna, udal ospakizunak, "Egun mundialak" ospatuta…

- Dentro de redes o eventos: Ruta del Hierro de los Pirineos (de la cual forma parte el Ayuntamiento), Jornadas Europeas del Patrimonio, Atlantikaldia, Día de los Molinos de Gipuzkoa, eventos municipales, celebración de “días mundiales”

- Ibaiaren Interpretazio Zentroaren ostalaritza-ekintzarekin koordinazioa, eta bestelako interpretazio-ekipamenduetan: Errenteria, Oarsoaldea eskualdea, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa,...

- Coordinación con la actividad hostelera del centro de interpretación fluvial, y con otros equipamientos interpretativos: Errenteria, comarca de Oarsoaldea, Gipuzkoa, Lapurdi, Navarra,…

- Lankidetza jarrera elkarteekin, Ingurumeneko Aholku Kontseilua, Udaleko beste sail batzuekin, erakundeetako

- Actitud colaborativa con asociaciones, Consejo Asesor de Medio Ambiente, otros departamentos municipales, agentes institucionales, oficina de

ESKU5235a50c-5037-46e5-8d18-bd1f255dba95

eragileekin, Oarsoaldeko turismo bulegoarekin,...

turismo de Oarsoaldea,…

- Enpresa kontratistak urteko memoria bat egingo du, garatutako jarduerak eta kudeaketa hobetzeko proposamenak laburtuz eta deskribatuz, eta horren argazkiak aurkeztuko ditu jpg formatuan.

- Con carácter anual la empresa contratista elaborará una memoria resumiendo y describiendo las actividades desarrolladas y las propuestas de mejora de la gestión, aportando fotografías de la misma en formato jpg.

5.- KOMUNIKAZIOA:

Kontratuak bere barne ere hartuko ditu dibulgazio-euskarriak eta kartelak, komunikabideentzako eta sare sozialetarako oharrak eta horien kanpo dibulgazioa prestatu eta diseinatzea. Era berean, Ibaiaren Etxeko programazioari buruzko kartelak eta liburuxkak diseinatzea eta inprimatzea aurrekusiko da, jarduerak zabalduz auzo desberdinetako kaleetan, lokaletan eta establezimenduetan, garraio geltokiak, egoitza publikoak, eta sare sozialetan euskarriak banatuz, Zentroko jarduera-taula iraunkorki eguneratuko delarik. Testuak ere idatziko dira, eta lagunduko du beste eskaintza batzuetan txertatzen diren.

5.- COMUNICACIÓN:

El contrato incluirá también la comunicación, en lo que corresponde a la preparación y el diseño de soportes divulgativos y carteles, de notas para los medios de comunicación y redes sociales y su divulgación exterior. Se incluirá el diseño e impresión de cartelería y folletos sobre la programación de Ibaiaren Etxea, distribuyendo los soportes en calles, locales y establecimientos en diferentes barrios, estaciones de transporte, equipamientos públicos, y en redes sociales, y actualizando permanentemente el tablón de actividades del Centro. También se redactarán textos y colaborará para difundir las actividades que se integren en otras ofertas.

6.- KONTRATUAREN IRAUPENA:

Kontratuak BI (2) URTEKO iraupena izango du, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da.

6.- DURACION DEL CONTRATO:

El contrato tendrá una duración de DOS (2) AÑOS, y podrá prorrogarse por un (1) año más.

7.- KOORDINATZEA:

Enpresa Udaleko Ingurumen eta Iraunkortasuneko Sailarekin koordinatuta arituko da lanean, eta koordinazio lan hauetarako enpresako solaskide pertsona bat eduki beharko du.
Solaskide honek Ingurumenak deitzen dituen koordinazio bileretara etorri beharko du, jarduera desberdinak adostuz.

7.- COORDINACION:

La empresa trabajará en coordinación con el Departamento de Medio Ambiente y Sostenibilidad, y aquella designará a una persona como interlocutora para estos trabajos de coordinación.

Esta persona interlocutora deberá asistir a las reuniones de coordinación que convoque Medio Ambiente, con el fin de acompasar las diferentes actividades.

8.- LANTALDEA ETA BALIABIDE TEKNIKOAK: BETE BEHARREKO ESKAKIZUNAK:

Enpresa lizitatzaileek frogatu beharko dute proiektu honetan parte hartuko duten begiraleek badituztela ingurumen-

8.- EQUIPO PERSONAL Y MEDIOS TÉCNICOS: EXIGENCIAS A CUMPLIR:

Las empresas licitadoras deberán probar que las personas monitoras que participarán en este proyecto poseen conocimientos técnicos sobre la

ESKU5235a50c-5037-46e5-8d18-bd1f255dba95

sentsibilizazioaren arloko ezagutza teknikoak eta esperientzia.

Baldintza hori gakoa da ingurumen gaietako parte-hartzea kontzientea eta sentsibilizazio-prozesuaren araberakoa izan dadin, zenbakiak lortzeko helburua besterik ez duen marketin lanaren ondorio baino gehiago.

Horrez gain, bi hizkuntz ofizialetan komunikatzeko gaitasuna izan beharko dute.

materia y experiencia en el ámbito de sensibilización ambiental.

Esta cuestión es clave para que la activación ciudadana en materia ambiental sea consciente y fruto de un trabajo de sensibilización, más que de un trabajo de marketing que busque sólo hacer números.

Asimismo, deberán tener capacidad para comunicarse con fluidez en cualquiera de las dos lenguas oficiales.

9.- ESKAINTZAK AURKEZTEA:

Aurkeztekoak diren eskaintzek gutxienez eduki hauek izan behar dituzte.

- Proiektu honen xedeari lotutako lanetan taldeak duen egokitasun teknikoa, demostratu daitekeen esperientzia antzeko proiektuetan eta lan taldearen curriculum-a. Horretarako, kontratuaren xede diren zerbitzuak emango dituen taldeko kideen zerrenda erantsiko da, bakoitzaren curriculumarekin eta titulazioarekin batera.
- Memoria teknikoa: ingurumen hezkuntzako proiektua, jardueren ezaugarriak eta faseak, baliabide materialak, lanen kronograma, lanen banaketa,...

9.- PRESENTACIÓN DE OFERTAS:

Las ofertas a presentar deberán tener por lo menos los siguientes contenidos.

- La adecuación técnica, experiencia demostrable en contratos similares y el curriculum del equipo de trabajo en relación al objeto del proyecto. Para ello deberá adjuntarse una relación nominal del equipo que efectivamente prestará los servicios objeto del contrato con su curriculum actualizado y la titulación con la que cuente.

- Memoria técnica: proyecto de educación ambiental, características y fases de las actividades, recursos materiales, cronograma de los trabajos, distribución de tareas,...

10.- GENERO BERDINTASUNEKO ERIZPIDEAK:

4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunekoak, xedatutakoaren arabera, bermatuko da genero-ikuspegia sartzea egiten diren dokumentu eta ekintzetan, eta hizkuntzaren eta irudiaren erabileran egon daitezkeen diskriminazio-elementuak ekiditea ere.

10.- CRITERIOS DE IGUALDAD DE GÉNERO:

Se cumplirá las determinaciones de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Para ello, se garantizará la inclusión de aspectos de igualdad de género en los documentos y actividades que se desarrollen, con objeto de evitar las posibles discriminaciones lingüísticas y de imagen que pudieran darse.

11.- HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERAREN INGURUKO EXEKUZIO BALDINTZAK:

Baldintza-agiri honetan ezarritako betebeharrak exekuzio baldintza moduan ezarri dira, eta kontratua gauzatzean egiaztatu beharko dira.

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea.

11.- CONDICIONES DE EJECUCIÓN EN RELACIÓN AL USO DE LAS LENGUAS OFICIALES:

Las obligaciones impuestas en en este pliego se establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato.

Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística. Es por ello que

ESKU5235a50c-5037-46e5-8d18-bd1f255dba95

Hola, zerbitzu honetako zerbitzu-hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira.

Kasu guztietan zerbitzuaren hartzaileen hizkuntza irizpideak bermatuko dira.

a) Hizkuntza gaitasuna:

Kontratuaren indarraldi osoan enpresa adjudikazio hartzaileak erabiltzaileekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatzen dituen langileek beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan gauzatzeko gaitasuna izan behar dute.

Enpresak hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea betetzeko konpromiso-orria sinatuko du baldintza-agirian zehaztutako hizkuntza gaitasun maila duten langileak kontratatuko dituela adierazteko, une oro herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.

Lehiatzaileak lana egingo duten pertsonen zerrenda aurkeztuko du bere eskaintzan, horien guztien euskararen ezagutza adierazita.

Nolanahi ere, eskaintza egiteko unean lehiatzaileak ez badu lana garatuko duten pertsonen zerrenda zehazterik, adjudikazio-hartzaile suertatzen bada, adjudikazioa egin aurretik bermea jartzeko ematen zaion epean eskatutako euskara gaitasuna duten langileak izendatu beharko ditu. Adjudikazio-hartzaileak Errenteriako Udalari aditzera emango dio pertsona horien zerrenda.

Enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk hartu edo kideren bat aldatuko balitz, adjudikazio-hartzaileak aurretiaz emango dio administrazio kontratatzaileari horren berri. Langile horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna izan beharko dute. Beste horrenbeste egin beharko du subrogazio bidez kontrataturiko langilerik balego horiek ordezteko kasuan ere.

Kontratu honetan zehazki:

Kontratuaren helburu den zerbitzua emateak herritarrekin zuzeneko harremanean lan

las lenguas de servicio serán el euskera y el castellano.

En todo caso, siempre se respetarán los derechos lingüísticos de las personas receptoras del servicio.

a) Competencia lingüística:

Durante todo el periodo contractual, las personas trabajadoras que la empresa adjudicataria designe para llevar a cabo su trabajo de relación directa con las personas usuarias del servicio deberán estar capacitadas para trabajar en las dos lenguas oficiales.

La empresa adjudicataria firmará una hoja de compromiso al objeto de declarar que contratará personal con la capacidad lingüística señalada en el pliego de condiciones técnicas, y garantizar de esa manera los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

Las empresas presentarán en sus ofertas la relación de personas que emplearán e indicarán el conocimiento de euskera de las mismas.

Si en el momento de realizar la oferta las empresas no están en disposición de precisar la relación de personas que emplearán, tras la adjudicación del servicio aquella que resulte adjudicataria deberá designar el personal con la capacidad lingüística en el plazo concedido para depositar la fianza. Deberá, asimismo, presentar la relación de dichas personas al Ayuntamiento de Errenteria.

Una vez realizada la contratación, en el caso de que alguna nueva persona se incorpore al servicio o alguna de las personas trabajadoras sea sustituida, la empresa adjudicataria deberá comunicárselo a la administración contratante. Quien realice la sustitución o quien se incorpore deberá disponer de la capacidad lingüística solicitada. Habrá de cumplir ese mismo requisito en los casos de sustitución de personal contratado mediante subrogación, si lo hubiera.

En este contrato, en concreto:

La prestación del servicio objeto del contrato exige una relación directa con la ciudadanía,

ESKU5235a50c-5037-46e5-8d18-bd1f255dba95

egitea eskatzen du, eta bi hizkuntza ofizialetan berme osoz eskaintzeko, kontratuari atxikitako langileek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak jasotako gaitasun mailen pareko gaitasunaren jabe izan behar dute.

Kontratuaren zereginak jendaurrean gauzatuko dituzten pertsonek C1 gaitasunaren mailaren pareko maila izango dute:

- Ahozkoan: informazioa eman eta eskatzeko gaitasuna izan behar dute, zuzentasun osoz eta jariotasunez, aurrez aurreko elkarrizketetan zein telefono bidezkoetan.

- Idatzizkoan: gai izan behar dute eskutitzak, laburpenak, espedienteen barruko agiriak, eta abar gramatika zuzentasun osoz idazteko.

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntza

Azken urteotan euskararen erabilera areagotzeko egiten ari den ahalegina osatu nahi du Udalak zerbitzu honen bidez. Hori horrela, enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua emango du Errenteriako Udalak emango lukeen baldintza bertsuetan. Kontratuaren berezko ezaugarriek (xede taldea ikastetxeetako ikasle eta irakasleak dira) kontratuaren zereginak ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute. Hortaz honela jardungo du enpresak:

Ahozko harremana:

- Haurrekin eta irakasleekin: euskaraz egingo dizkie ahozko zein idatzizko (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak,...) nolanahiko komunikazio eta dokumentu guztiak.

- Irakasleekin: ikastetxeetako barne lana dinamizatzeko eragileekin egiten dituen koordinazioak euskaraz izango dira.

- Gurasoekin harremanik izanez gero, lehenengo arreta, aurrez aurre zein telefonoz, euskaraz izango da. Hortik

por lo que al objeto de ofrecerlo con total garantía es necesario que en función de las tareas que desempeñen las personas trabajadoras durante la duración del contrato tengan una competencia lingüística similar a la recogida en el Marco Europeo de Referencia para las Lenguas.

Las personas encargadas de la ejecución de las tareas del contrato en contacto con la ciudadanía tendrán un nivel de competencia lingüística similar al C1:

- Competencia oral: tendrán capacidad lingüística para solicitar y ofrecer información, con total corrección y fluidez, tanto en las relaciones presenciales como telefónicas.

- Competencia escrita: tendrán capacidad para redactar cartas, resúmenes y documentos extensos etc. con absoluta corrección gramatical.

b) Idioma que se utilizará en la prestación del servicio

Teniendo en cuenta que en estos últimos años el Ayuntamiento ha realizado un gran esfuerzo a favor de un mayor uso del euskera, la empresa adjudicataria realizará el servicio en unas condiciones similares a las que de hecho se exigen al Ayuntamiento de Errenteria. Las características intrínsecas del contrato (el público objetivo receptor del servicio es el alumnado y profesorado de los centros escolares) exigen que tareas que constituyen objeto del contrato que el servicio se realice en euskera:

Relación oral:

- Alumnado y profesorado: realizará en euskera todas las comunicaciones orales y escritas (impresos, notas, avisos, horarios), así como la documentación utilizada.

- Profesorado: las reuniones de coordinación y apoyo con quienes dinamizan el trabajo interno de los centro se realizarán en euskera.

- En caso de tener que relacionarse con las madres y padres del alumnado, la primera atención, tanto presencial como telefónica,

ESKU5235a50c-5037-46e5-8d18-bd1f255dba95

aurrerako jardunean harremanetarako hizkuntza aukeratzeko eskubidea dutela jakinaraziko zaie. Idatzizko harremanei dagokienez, berriz, gurasoekiko balizko jakinarazpen eta komunikazioak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, haien hizkuntza hautuari jarraiki.

será en euskera y continuará en el idioma que elijan. En cuanto a la relación escrita, las posibles notificaciones y comunicaciones se les realizarán en euskera o en euskera y castellano, teniendo en cuenta su opción lingüística.

- Udal ordezkariekin honela jardungo du:

- Con las y los representantes municipales:

  - euskaraz, hala nahi duten udal ordezkari politikoekin

  - en euskera, con las y los representantes políticos que así lo deseen

  - langileekin: euskaraz

  - personal municipal: en euskera

- Bilerak, hitzaldiak, irteera gidatuak, aurkezpenak, eztabaidak, prestakuntza saioak,...: ekintzaren hasieran hizkuntza ofizialen erabilera nola kudeatuko den adostu egingo da, eta:

- Reuniones, conferencias, salidas guiadas, presentaciones, debates, sesiones formativas,…: al inicio de la actividad se acordará el modo de gestionar el uso de las lenguas oficiales, de tal manera que:

  - parte hartuko duten kide guztiak euskaldunak direnean, bilerak euskaraz egingo dira

  - cuando todas las personas que intervengan sean euskaldunes, la actividad se desarrollará en euskera

  - bileran parte hartuko dutenen ulermen maila bermatua dagoenean, nagusiki euskaraz egingo da

  - cuando esté garantizado que todas las personas tengan el nivel de comprensión necesario, se hará mayoritariamente en euskera

  - euskaraz eginez gero partaide guztien ulermena bermatzerik ez dagoenean, euskarrien laguntzaz euskararen gutxieneko presentzia bermatzea sustatuko da (idatzizko informazioa, ppt aurkezpenak,...).

  - cuando por realizarse en euskera no se pueda garantizar la comprensión de todas las personas participantes, se garantizará la presencia mínima del euskera con la ayuda de diversos soportes (información escrita, presentación ppt, etc.).

Idatzizko harremana:

Agiri eta komunikazio guztiak zein jardueren komunikaziorako erabiltzen dituen dibulgazio euskarriak eta komunikabideentzako oharrak euskaraz edo ele bitan sortu eta bideratuko ditu enpresak, ahozko harremanetarako adierazitako irizpide bertsuei jarraituz.

Comunicación escrita:

Todas las notificaciones y comunicaciones así como los soportes divulgativos y las notas a los medios de comunicación que utilice para la comunicación de las actividades se realizarán en euskera o en euskera y castellano, siguiendo los mismos criterios señalados para las comunicaciones verbales.

c) Hizkuntza paisaia

Enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua ematean herritarrei begira jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egongo dira.

c) Paisaje lingüístico

Los rótulos, señalización, avisos, carteles y resto de comunicaciones de carácter general que instale la empresa adjudicataria al prestar el servicio, se harán en euskera o en los dos idiomas oficiales.

ESKU5235a50c-5037-46e5-8d18-bd1f255dba95

- Mezuak piktograma bidez egingo dira

- Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira, euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia duten hitzetan, edota oso zabalduta daudenetan (udaletxea, kultur etxea,...)

- Aurreko kasuak ezinezkoak direnean, ele bitan egongo dira, euskarari lehentasuna emanez, betiere Udalarekin adostuta.

d) Administrazioari aurkeztu beharreko dokumentazioa

Laburpen gisa, enpresa adjudikazio-hartzaileak dokumentu hauek aurkeztuko ditu euskaraz eta gaztelaniaz:

- kontratuan zehar sortzen dituen dokumentu eta material guztiak

- liburuxkak eta posterrak

- PowerPointen landutako aurkezpena

e) Hizkuntza baldintzen jarraipena

Udalak enpresa adjudikazio-hartzaileak ematen duen zerbitzuaren jarraipena egingo du kontratua gauzatzen den epe osoan, indarrean dagoen araudia bete eta herritarren eskubideak bermatzeko.

Ingurumen Sailak harremanetan jarriko ditu enpresa adjudikazio-hartzailea eta Udal Hizkuntza Politika saila, jendaurrean arituko diren langileei euskara gaitasuna egiaztatzeko elkarrizketa egin diezaien, zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan berme osoz eskain dezaketen egiaztatzeko asmoz. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak jasotako titulazioren bat aurkeztuz gero, berriz, ez dute elkarrizketa egin beharrik izango. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako kasuak.

- Los mensajes se realizarán mediante pictogramas

- Cuando no pueda utilizarse un pictograma, se realizarán en euskera cuando la grafía de las palabras sea similar en euskera y en castellano o se trate de palabras de uso extendido (udaletxea, kultur etxea...)

- Si los casos anteriores no son posibles, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad del Ayuntamiento.

d) Presentación de documentos a la Administración

Documentación final que la empresa adjudicataria entregue a modo de resumen estará redactada en euskera y castellano:

- los documentos y materiales que se generen durante el contrato

- revistas y carteles

- presentación en formato PowerPoint

e) Seguimiento de los criterios lingüísticos

El Ayuntamiento realizará el seguimiento del servicio ofrecido por la empresa adjudicataria durante toda la fase de ejecución del contrato, con el fin de cumplir la legislación vigente y garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

El área de Medio Ambiente pondrá en contacto a la empresa adjudicataria con el departamento de Política Lingüística Municipal al objeto de que realice una entrevista a las personas designadas para la prestación del servicio de atención directa al público, en la que se verifique que tienen la capacidad lingüística necesaria para trabajar con total garantía en los dos idiomas oficiales. Quienes presenten alguna de las titulaciones recogidas en el Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas no tendrán que realizar la entrevista. Asimismo, en base al Decreto 47/2012 de 3 de abril, se reconocerán los estudios oficiales realizados en euskera y serán considerados los casos de exención de la acreditación con títulos y

ESKU5235a50c-5037-46e5-8d18-bd1f255dba95

certificaciones lingüísticas en euskera.

Elkarrizketa eguna eta ordua Udal Hizkuntza Politikak adostuko du zerbitzua jendaurrean emango duten langileekin, eta gehienez ere zerbitzua ematen hasi eta hamabost egunera egingo da.

El día y hora de la entrevista serán consensuadas entre el departamento de Política Lingüística Municipal y las y los profesionales, y se realizará como máximo dentro del plazo de quince días desde el comienzo de la prestación del servicio.

Udal Hizkuntza Politika sailak elkarrizketa egin duten langile guztien euskara gaitasunaren inguruko txostena emango du. Zerbitzua jendaurrean ematen jarraitzeko ezinbestekoa da Udal Hizkuntz a Politikaren aldeko txostena eskuratzea. Elkarrizketan jendaurreko funtzioak bi hizkuntzetan betetzeko beharrezko gaitasuna egiaztatu ezean, langilea ordezteko eskatuko zaio enpresari.

El departamento de Política Lingüística Municipal emitirá informe sobre cada persona que realice la entrevista. Para prestar servicio de cara a la ciudadanía es imprescindible el informe favorable del departamento de Política Lingüística Municipal, por lo que se exigirá a la empresa que sustituya a las personas que en la entrevista no acrediten la capacidad lingüística necesaria para desempeñar sus funciones de atención al público en los dos idiomas oficiales.

Zerbitzua ematen den bitartean, eta hizkuntzari dagokionez zerbitzuari egindako jarraipenean oinarrituta, Udalak uste badu baldintza teknikoen agirietan jarritako hizkuntza betebeharrak ez direla bete, arau-hausteen ondoriozko prozedura jarriko du martxan (kontratua amaitu edo penalizazioak ezarri, kasuan-kasuan).

Si durante la prestación del servicio el Ayuntamiento considera que no se han cumplido las obligaciones lingüísticas establecidas en el pliego de condiciones técnicas, pondrá en marcha el procedimiento derivado de las infracciones cometidas (finalización del contrato o imposición de penalidades, según corresponda).

Errenterian, sinaduraren datan.
Ingurumeneko Goi Mailako Teknikaria
El Técnico Superior de Medio Ambiente

EKS | CSV: ESKU5235a50c-5037-46e5-8d18-bd1f255dba95
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06710
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06710

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2026OZER0010-BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA/DOCUMENTO CONDICIONES TÉCNI(

Sinatzailea 1 / Firmante 1: IÑAKI AZKARATE PEREZ - 15986540E
Ingurumeneko goi mailako teknikaria
Data / Fecha: 2026/03/04 12:53:16